

ZIURTAGIRIA Osoko Bilkuraren erabagia

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2024-11-28(e)(a)n, OSOKO BILKURAK erabagi hau hartu dauela:

9.- 2024-2025 BUSTURIALDEKO ENPLEGU PLANEN OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.

Xedea

Tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik dirulaguntzaren oinarriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, Busturialdeko udalen izenean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2024ko laguntzen eskaera egin du eta horren ebazpena, Busturialdeko enpresei kontrataziorako dirulaguntzak emateko, jaso du.

Bigarrena: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzak ,2024ko martxoaren 20ko ebazpen bidez argitaratuak adierazten duten moduan, Bermeoko Udalak Busturialdeko enpresei kontrataziorako dirulaguntzak emateko, dirulaguntzen lerro bat sortu egin behar du, Lanbide-Euskal Enpleu Zerbitzuaren ebazpenak dioen moduan.

Hirugarrena: Proposatzen den dirulaguntza honen bidez, Tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak ohiko lan-merkatuan kontratatzea lortu nahi da; eta era berean kontratazio-kostuaren zati bat dirulagunduz.

Laugarrena: 2024ko urriaren 1ean, Behargintzako arduradunak justifikatze memoria egin du.

Bosgarrena: Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak 2024ko urriaren 3an ebazpena bidali du, hasteko baimena emanez.

Seigarrena: Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, 2024ko urriaren 4an txosten juridikoa egin du.



Zazpigarrena: 2024ko urriaren 14an kontu-hartzaileak aurretiazko fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Proposatzen den dirulaguntza bideratzeko oinarriak prestatu dira; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzak 2024ko martxoaren 18ko ebazpen bidez argitaratuak adierazten duten moduan.

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta bere Erregelamenduak araututakoa izango da aplikagarria sustapen ekimen honetan.

Hirugarrena: Dirulaguntzaren helburua, alde batetik, enpresa-ehunari laguntzeko neurri desberdinak hartzea, eta bestetik, Busturialdeko langabetuei, aukerak ematea Busturialdeko enpresetan lan egiteko eta ondorio ekonomiko eta sozialak arintzeko.

Laugarrena: Kreditua dago 2024-01000-24100-4220105 aurrekontu partidan.

Bosgarrena: Oinarri Espezifikoak onartzeko ahalmenari dagokionez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluekin bat, Osoko Bilkurari dagokio.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik dirulaguntzaren oinarriak (I. eta II. Eranskinak barne) onartzea.

BIGARRENA: Diru laguntzen datu base Nazionalak eskatutako informazioa jakinaraztea Datu baseari.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Nadia Nemeh Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data

	Sinadurea eta data		EXPEDIENTE :: 2024IDA_DEK0829 Data: 30/08/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unitadea: Erregistro nagusia
	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80011852D00X1B8Z6N7C0Q5	JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/12/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/12/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/12/2024 08:30:25	

CSV: 07E80011852D00X1B8Z6N7C0Q5

